

ZENBAT BURU
Iñigo Otaño

ERREPORTAJEA
Autoen
birziklairako
lantegia

BERBETAN
Luis Gimez
diakonoa

GEHIGARRIA
kiliBARREN

KIROLA
Nazioarteko 56.
Mugerza Krosaren
kronika



KULTURA
Kandelaria,
San Blas eta
Santa Eskea


BARREN

1999ko urtarrilaren 29a
VII. urtea 264. zkia

ANIMMI111~1

E I L G I L A K K O

A S T E K A R I A



Luis Gomez diakonoa
**Parrokiako
aurpegi berria**

"Notako elizalde, halako abade"

guztiona



**Elgoibarko
Herri Eskola**




herriarena

zeurea

11

all

Arreiturre Institutua



Aurrematrikula:
Otsailaren 1etik 12ra arte

Herri Eskolako Ate Irekien Eguna, otsailaren 6an



Herri Eskola

Tel: 943 74 08 79


E-maila: info.elgoibar@educanet.net

Eusko Jaurlaritza

Herri Institutua

Tel: 943 74 02 67

E-maila: ifp.elgoibar@eaf.servicom.es



IÑIGO OTAÑO

Atal hau ez da BARRENen editoriala. Urtero 15 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.

Izarren bila

Ez dakit ziur baina Alemanian ustedut izan zela. Poliziak sei urteko haur bat aurkitu omen zuen pedalekin dabilzan auto txiki horietako batean autopistan gauetz zihola. Haurra, gurasoak lo zeudela aprobetxatuz, kotxetxoa hartu eta etxetik irten zen, norbaitek autopistan ikusi zuen arte. Poliziari deitu eta haurra aurkitu zutenean, 'izarren bila' atera zela esan zien. Halaxe zioen behintzat entzun nuen berriak.

Haur hari ez zioten, antza, ondo azaldu izarrak hor goian egon arren, ezin garela beraiengana iritsi, ez dagoela haiek ukitzerik. Ez zioten azaldu pedalezko kotxerik azkarrena erabilita ere, ez zela inoiz haiengana helduko. Nola jakingo zuen hori sei urte besterik ez bazituen?

Izan ere, guztia posible dela iruditzen zaigu haurrak garenean. Ez dago muga finkorik, ez dago lortu ezin denik, inork kontrakoa esaten ez digun bitartean. Eta kontrakoa entzunda ere, kosta egiten zaigu askotan sinestea. Gainditu ezin ditzakegun zenbait muga badaudela konturatzen garenean, bizitzak dakartzan egia gordin ho-

riek barneratzen ditugunean, uzten dugu hein handi batean haurtzaroa.

Gogoratzen dut txikia nintzenean ortzadarra ikusten nuen bakoitzean, bertara joan nahi izaten nuela, nire eskuez arku bixi hura ukitzeko. Bertara joateko eta joateko eskatzen nuen behin eta berriz, baina nagusiek ezetz esaten zidaten, hura ezin


zela hartu, ez zela gainontzeko gauza arruntak bezalakoa. Nik ez nuen tutik ulertzen, ikus zitekeen gauza bat ezin ukitzeko arrazoirik ez nuen aurkitzen.

Orain badakit gauza horiek ezin direla ukitu, izar asko duela milaka urte egon ziren eta jadanik ez dauden gorputz haiek igorritako argia

besterik ez direla, ortzadarra eguzki-izpiak ur tantetan isladatu ostean, kolore anitzetan banatu den argia besterik ez dela. Bertara joanda ere, aurkituko ez ditugun gauzak direla.

Bizitzak erakusten dizkigun lekzioak dira, hauek eta garratzagoak diren beste zenbait ere, onartu beste erremediorik ez dauzkagunak; poliki-poliki haurtzaroko ilusioen poltsa hartatik lapurtuz datozen lekzioak, azken finean.

"Gainditu ezin ditzakegun zenbait muga badaudela konturatzen garenean, bizitzak dakartzan egia gordin horiek barneratzen ditugunean, uzten dugu hein handi batean haurtzaroa".





Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
zr 943 74 41 12
Publizitatea:
77 943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04

E-maila: barren@topagunea.jalgi.com

ARGITARATZAILEA	Elgoibarko liaoa
LAGUNTAILEA	Elgoibarko Udala
ZUZENDARIA	Ainhoa Lodoso
KAZETARIAK	Ainhoa Lodoso, Jasone Osoro
PUBLIZITATEA	Maitane Cid
MAKETATZAILEA	Bea Ansola
ADMINISTRAZIOA	Amalia Martin
GERENTZIA	Rafa Alvarez, M. Angeles Ortuoste.
KOLABORATZAILEAK	Irati Agirreazaldegia, Ana Artetxe, Jose Mari Baslida, Mari Karmen Elorza, Maider Elustondo, Jon Eugi, Koldo Galdona, Aintzane Garate, Jon Garate, Juanito Gorostiza, Arnailz Gorriti, Alberto iriondo, triaki Jaio, KOKOE, Imanol Larrañaga, Nieves Loiola, Ongarri Zine Kluba, Asier Orbea, Julian Segundo, Jon Suarez, Anel Ugarleburu, Iban Urizar, Miren Vallejo.
AZALEKO ESALDIA	Gotzon Garate
BANAKETA ARDURADUNA	IMan01 Larrañaga
INPRIMATEGIA	Gertu Koop. E.
TIRADA	4.000 ale
LEGE GORDAILUA	SS-1.038/92
ISSN	1139-1855

Elgoibarko Udalak, Eusko

Jaurlaritzako
Kultura Sailak eta
Foru Aldundiak
diruz
lagundutako
aldizkaria.



fundazioa
EZIP *fundazioa

DANOBAT

414 1301T1
GRUPO DANOBAT

Gabonetako islada faltsuak

Tontotik ez dute parterik, ez, Eusko Jaurlaritzako telekomunikazio alorreko teknikoek. Nahiz eta hilabete batzuk pasa diren jarri zutenetik, Gabonak aprobetxatu dituzte Karakateko Super-antenako argi gorriak pizteko. Horrela, mendi tontorrean dagoen Gabonetako zuhaitz baten antzera, baliteke jendea polita iruditzea. Gu, ingurugiroaren alde eta leku berezi horretan egin duten alferrikako sarraski horren aurka gabiltzanok, argi petral horiek zerua garbi dagoen bakoitzean kolpatzen gaituzte.

Gau izartsuetan, begirada jaso eta bista nahi gabe Karakateruntz zuzentzen zaigun bakoitzean oroitzen gara mundura ekarri zituzteenez.

Karakate Bizirik, eraso gehiago ez. Antenak lurrera, zentral eolikoari ez!

Eta argi kontuez ari garenez, gertakizun bat igorri nahi dizuegu. Abenduaren hasieran, Udalarri eskatu genion Gabonetako argi 'kutre' horietan alferrik xahutzen den dirua, benetan diru horren premia duten 'Miteh' hurakanaren ondorio larriak pairatu dituzten Ertamerikako herrietara bidaltzeko. Ez genuen karitate gisan eskatu, mendebaldeko munduak mendeetan herrialde horiei egin dien kaltearen ordainetan baizik (zati txiki bat besterik ez bada ere).

‘Gure’ agintarientzat, gure eskakizuna ez zen gustukoa izan nonbait. Ez zuen askorako balio izan Gabonetan egon izanak, ‘bake eta maitasun’ garaian, behartsuekin hain onak eta solidarioak garen egunetan. Agian, horregatik izango zen, edo guztiz kontrakoarengatik. Eskakizuna ez betetzeaz gain, ez genuen erantzunik jaso. Isiltasunak dena esan nahi du batzuetan.

Kontsumismoari eta hipokresiari stop.

Osasuna.

Elgoibarko Gazte Asanblada

Misioetako Tonbola

ean Lazaro egoitzaren izenean, eskerrik asko 98-99 Misioetako Tonbolarako opariak eman dizkigutenei eta, nola ez, baita txartelak erosi dituzten guztiei ere. Zuen kolaborazioa ezinbestekoa izan da gure asmoak aurrera atera ahal izateko. Datorren urtera arte.

San Lazaro egoitza

Eskerrik asko Ego-Toki Elkartearen izenean

go-Toki Elkarteak 56. Mugerza Ljalcroseko antolatzaileok eskerrik beroenak luzatu nahi dizkiegu aurten krosa egiten lagundu diguten guztiei, batez ere, Elgoibarko Udalarri, publizitatearen bidez lagundu dutenei, BARREN astekariari, herriko denda eta lantegiei, ibilbidean lan egin duten guztiei eta, orokorrean, Elgoibarko herri osoari.


Ego-Toki Elkarteak
Atletismo Batzordea



- Herritar batek deitu digu kexa hau plazartzeko: "Ermuaranbiden bizi naiz eta aurreko astean, Basarteko bizilagunak azaldu zuen kexaren haritik, **Ermuaranbide kalean ere kristalak botatzeko kontenedorerik ez dagoela salatu nahi dut.** Zakarrontziak eta papeira birziklatzeko ontziak badaude baina kristal kontenedorerik ez. Normala den bezala, herri erdiraino botilekin ez joateagatik jendeak zakarrontzira botatzen ditu zuzenean".
- **Ume bat etorri zaigu BARREnera Artetxen iturririk ez dagoela esateko.** "Auzo guztietan dute iturria eta gttrean, aldiz, ez dago. Zergatik? Gutxiago al gara?".

- Etnakume batek **kaleak isteko piboteen leku-aldaketari buruzko kexa bidali digu.** "Orain arte, Errosario kalearen hasieran piboteak jartzen zituzten autoak ez pasatzen. Gaur egun taxi geltokiaren ondoan egoten dira piboteak. **Aldaketa txarrerako izan da nire ustez.** Lehen, arratsaldeetan Plaza Handian umeekin egoten garenok, Errosario kalera begiratuta bagenekien zenbat auto pasatuko ziren Plazatik baina orain, Plazatik Kultur Etxe ingurua ikusterik ez daukagunez, ezin dugu jakin zenbat auto agertuko diren ezustean Plaza Handian. Gogorazi nahi dut ume asko eta asko egoten direla arratsaldean Plazan jolasean eta egunen batean sustoa edukiko dugula autoren batekin".

BAI, ESAN?



Isak Loiola
EAJ-PNUko kidea

Euskal Herriko Udalerrien Biltzarra puri-purian dagoen gaia da, Komunikabideetan ez da besterik entzuten edo imkuzen. Aurreko zapatuan EAJ-PNVko udal agintariak Bilbon elkartu zirenetik, makina bat hauts harrotu da han eta hemen. Elgoibartik ere izan ziren hainbat ordezkari, Gillemto Garate alkatea, Jose M. Oruesagasti alkateordea eta Isak Loiola, besteak beste. Gu **Isak** Loiolarekin egon gara Udalerrien Biltzarra zer den galdetu eta sortu diren enekzioel buruz berba egiteko.

- **Noiz eta nola hasi zineten Udalerrien Biltzarraren ideia mamitzen?** Garbi dago ekimen hau ETAk aldarrikatu zuen su-etenak sortu duen testuinguruan ulertu behar dugula. Horrek ez du esan nahi gure alderdiarentzat berriak direnik ekimen honen azpian dauden ideiak eta asmoak.

- **Jende askori entzun diogu ez dakitela zertarako den.** Gure ikuspuntutik Euskal lurraldetasunaren ezagutza bultzatzeko elkarlanerako gunea da Udalerrien Biltzarra. Egungo errealtate instituzionala baztertu gabe, hizkuntzan, kulturean, kirolean, lurralde antolaketan, gizarte-ongizatean eta hainbat arlotan, lan esparruak finkatu nahi ditugu Erkidego Autonomoaren, Iparraldearen eta Nafarroaren artean.

- **Izugarritzko hauts harrotu da zapatutik hona. Zergatik?** Guztiz demokratikoa eta tolerantzia den ekimen honek neurrigabeko erantzuna jaso du. ETAk su-etena aldarrikatu zuenetik aber-tzaletasunaren kontrako erasoak izugarri areagotu dira, eta honek argi erakusten du demokraziari eta askatasunari beldurra zaiola.

- **Lizarra-Garaziko akordioa, Udalerrien Biltzarra,... Zer ari da gertatzen ETAk su-etena iragarri zuenetik?** Alde batetik, Euskal Herriaren gehiengoak poz handia hartu zuen, eta g., arai berriak eskatzen zuen janerari heldu zitzaion, elkar-riketari eta elkarlanari, alegia. Orduan baina argiago dauka-gu guztiok gure herriak bizi duen gatazka politikoak elkarriketan eta euskal hiritarren bowndatearen errespetuan duela konponbide baktarra. Ez diezaigun Herriari huts egin.

ITURAIN & ASOC.
senicios Itunobiliarios Integrales
CONSULTING GROUP


Jesus M. Gabilondo Urain
Delineatzailea - **Topografoa**
1397. kolegiatua

Neur Lur

Erreformak • Etxe barruko lanak
Lan Topografikoak



libitarte, 4-5 esk. • Tel. 943 74 45 99 • Faxa: 943 74 18 91 • 20870 Etgoibar



Autoen birziklaia ari dira lantzen Herri Institiauko automozioiko ikasleak.

AUTOEN BIRZIKLAIA ETORKIZIJA

Birziklapenaren aroan bizi garela ukaezina da. Tetra Brik-etatik hasita, beira eta erropataraino dena aprobetxatzen da. Ez da ezer alperrik galtzen. Birziklaiaren joera hau autoetara ere iritsi da. Elgoibarren horren lekuko da Herri Institutuko automozio atalekoek Lagun tailerra zegoen eraikinean antolatu duten ikastaroa. Bertan automobilen material eta piezak aukeratzen eta desmuntatzen dituzte, ondoren birziklatu ahal izateko. Oraindik gehiegi landu gabeko arloa denez, etorkizunari aurrea hartzea du helburutzat ikastaro honek, eta bien bitartean, ikasleei formazioa eskaini. Ingurugiroaren eta ekonomiaren mesedetan izango denez, gure arreta merezi duen gaia da birziklaiarena.

Agustín Aguirre, Herri Institutuko automozioiko irakaslea, birziklapen proiektuko arduraduna da, eta berak kontatu dizkigu xehetasun guztiak, ikastaroko 12 ikasleek auto zaharren piezak jo eta ke desmuntatzen ziharduten bitartean.

ALEMANIARREN ITZALEAN

Orain dela bi urte hasi omen ziren automozio departamenduan birziklapenaz arduratzen. "Europar beste eskola batzuekin kontaktuan jarri eta Frantziatik eta Italiatik informazioa jaso ondoren, Alemaniako automozio eskola batekin harremanetan jarri ginen", aipatu digu Agustinek. "Irakasleen arteko el-

kartrukeak egin genituen eta bi irakasleek 15 egun pasa zituzten Alemanian, bertakoen esperientzia ikasteko asmatan". Laster ikasleak ere elkartrukatzeko asmoa dutela gaineratu digu.

Alemaniarrek autoak desmuntatzeko ikastaroak zeuzkaten antolatuta. "Hemengo irakasleei esperientzia interesgarria iruditu zitzaion eta bueltan, denon artean eztabaidatu ondoren, Elgoibarren antzeko ekimena antolatzea erabaki zen". Lehen pausoa Eusko Jaurlaritzako Ingurugiro Sailarekin harremanetan jartzea izan zela esan digu Agustinek. "Bidaian eta esperientzietan oinarriturik, automobilen birziklaia selektiboa deritzea proiektua aurkeztu genien, autoen deskontaminaziorako eta desmuntaiara-

ko lantegi bat jartzeko nahia adieraziz, esperientzia piloto modura Helburua, birziklaia selektiboaren esperientzia hau etorkizunean bideragarria izan daitekeen jakitea da. Proiektua, funtsean, ikerketa moduko bat da eta emaitzen arabera jarraituko du aurrera ala ez".

Birziklaia prozesua, beraz, honakoa litzateke: lehenik, elementu kutsakorak kentzen dira. Gero, birziklatu daitezkeen materialak hautatzen dira. Ondoren, produktu berriak sortzeko ahalik eta material gehiena birziklatzea komeni da. Egoera onean dauden piezak beste ibilgailu batzuentzat baliagarriak izan daitezke. Azkenik, tratamendu kirkinoekin, hondakin toxikoek ingurugiroan eragirik izan ez dezaten saiatu behar da.

Proiektua ikerketa moduko bat da eta emaitzen arabera jarraituko du aurrera ala ez".



aterial kutsakorrak banan banan atera behar izaten dira

HASIERAKO ZAILTASUNAK

"Heren Iantzen ari garen proiektu edo ikastaroan, autoen zatiketa selektiboa da guri dagokigun pausoa, etorkizunean egingo diren ibilgailuen birziklapen zentroek Iehengaia izan dezaten". Proiektu hau martxan jartzeko eragozpenak handialc omen ziren, diru aufferkontuak, lokal baten beharra... etab. "Ingurugiro arloan harrera ona izan zuela ikusirik, ordea, beste instituzioetara laguntza eske joatea erabaki genuen. Hara eta hona mugitu eta Ian handia egin ondoren, Udalak lokalaren gestioa lortzen lagundu zigun". Bestalde, Jaurlaritzako Lan Sailak era askotako ikastaroak diruz laguntzen dituenez, "gurea ere 1.104 orduko formazio ikastaro bat subentzionatuz bultzatu zuten, bide batez, hasieratik geneukan beste helburua betez, formazioa eskeintzea, alegia". Ikastaro-proiektu honen iraupena mugatua izango da, urrian hasi eta uztaile-rarte luzatuko baita.

Agustinek aipatu digunez, "guk egiten dugun lanak txatarroari ez dio dirurik ematen, aitzitik, gastuak sortarazten dizkio". Elementu kutsakorrak kentzea eta birziklapenerako zatiketa selektiboa egiteak auto bakoitzeko 5.000-10.000 pezetako kostua du. Beraz, gakoa "mentalitate edo txip aldaketan legoke, auto zahar-rarengatik 10.000 pezeta kobra-

tzearen edo ordaintzearen artean ez baitago alderik auto benia erosterakoan bi milioi gastazeko prest dagoenarentzat".

Bide batez, ingurugiroari mesede handia egiten zaio, autoak, erabili edo ez, kutsakorra izaten jarraitzen baitu. Gainera, erabiltzen ez den ibilgailua gaizki ustiatutako aberastasuna da, birziklaiaren bidez lehengaietan aurreztea lortzen baita.

EUOPAR LEGE BERRIAK

Datozen urteetarako, Europatik lege aldaketa gogorak datozela ohartarazi zigun Agustinek, "txatarrieriek birmoldaketak jasango dituzte, ibai ertzeetatik pabiloi seguruagoetara pasatuko dira eta produktu kutsakor bakoitzak dago-kion edukiontzia izan beharko du".

"Auto baten pisuaren %75a aprobetxatzera iritsi gara, baina legedi berriaren helburua 2015. urterako %95a birziklatzea da. Dena den, gaur eguneko kopurua engainagarria da, nagusiki burniaren aprobetxamendua soilik egiten baita. Goma, beira eta autoen likido guztiak, berriz, ez dira ezertarako berrerabiltzen eta hauek dira arriskutsuenak eta toxikoenak. Agustinek dioenez, "2003. urterako derri-gorrezkoa izango da material kutsakorrenak, hau da, balazten likidoa, bateria, motorren olioia, aire egokituen gasa eta lubrikante guztiak orohar, baina emanda dauden ibilgailuetatik kentzea eta beste erabilpen batzuetarako aprobetxatzea birziklapenari esker".

Asier Orbea

2003rako kendu egin beharko dira material kutsakorrak baja emanda dauden ibilgailuetatik.



ikastaroan parte hartzen ari diren ikasleak, monitorea eta arduraduna ikus ditzakegu.

OTSAILAK 4, SANTA AGEDA BEZPERA

Zeren aldeko dirtheskaria egingo zeñike?



ANTONIO PUYADENA
68 urte, jubilatua

Behartsuen alde, herrixan biharra dakan jende asko dao eta jasotzen dan diru guztia biharrezkua izango da.



GORKA MERINO
22 urte, pintorea

Herrian beharra dutenei laguntzea da garrantzitsuena, askotan uste duguna baino jende behartsu gehiago bizi da inguruan.



MANU MORA
40 urte, irakaslea

Batez ere herritarrei zerbitzu sozialak helaraztearen alde, beharra dutenei laguntzeko. Eta, horrez gain, aparkalekuak sortzeko beharra ere handia da.



ANTONIA AZPIAZU
70 urte, etxekoandrea

Etxian gaixuak ditzuztenei laguntzeko. Jende asko dao familiakoren bat erresidentziara eruan biharra dakana eta ailegau ezinik dabilena.



M. CARMEN ROSA
38 urte, etxekoandrea

Ertamerikara bidal tzeko, orain gutxi Colombian lurrikara izan dute eta duela hilabete gutxi hurakana izan zuten. Behar handia dute.



LOURDES URANGA
38 urte, dendaria

Santa ESKIA herrixan indako diru-eskarixa da eta herrixan bertan dauden behartsuen artian banatzeko erabiliko nuke.

esan zeuk ere
13A1 EUSICARARII!

Euskara ikasteko maila guztiak eta E.G.A

ath molthN

Plaza Txikia, 3 • Tel: 943 74 13 32

Ikasle eta langabetuek matrikula erdia

ESOZIA
erreylela afehea

gurdunizi erara eyunei;o menua „Asleguaera4o menua 4unero

Esozia, zig. z. 943 75 10 01 20590 Soraluze



Osaunean adituak

GAIA:

ERREDURAK

Erredura gaixotasuna ez bada ere, oso sarri gertatzen den zerbait da. Erredura gehienak azalean izaten dira normalean suak eragimena. Hata ere, zenbait sustantzia kimikok, elektrizitateak edo eguzkiaren radiazioak ere erredurak sor ditzakete.

Lehen graduko erredurak:

Azalaren gaineko kapa erretzen denean, gorri-nea sortzen da eta mina izaten dugu erretako lekuan. Batzuetan handitu egiten da eta noizbehinka sukarra ager daiteke. Erredurarik arinenak dira eta pomada bat emanez edo erretako zona freskatuz nahikoa izaten da. Mina edo sukarra badugu aspirina har daiteke.

Bigarren graduko erredurak:

Epidermisaren kapa sakonagoak erretzen direnean erredura larriagoa izaten da eta normalean batak irteten dira.

Hirugarren graduko erredurak:

Azalaren kapa guztiak erretzen badira zuritu egingo zaigu erretako azata (egosita egongo batitz bezala).

- 2. eta 3. graduko erreduren kasuan, medikura joatea komeni da, Mina arintzeko erretako zonaldea ur hotzetan sartu. Medikua antibiotikoak, analgesikoak, tetanoaren aurkako txertoa edo beharrezko botika emango digu. Mota honetako erredurak benda batekin babestu behar izaten dira erabat sendatu arte.

- 6 egunen ostean hobekuntzarik igartzen ez bada, hotzikarak, sukarra, edo zornea agertzen badira, medikuari deitu.

PREBENTZIOA:

Krema babesgarriak erabili behar dira honclartzara edo mendira bagoaz.

./ Etxean eta lantokian suteen kontrako alarma sistemak instalatzea komeni da.

▪ Bero eta radiazio sistemak eta sistema elektrikoak erabiltzen direnean segurtasun neurriak errespetatu.

./ Poxpoluekin, briskeroekin eta entxufeeekin kontuz ibiltzen irakatsi behar zaie umeei. Entxufeak plastiko bereziekin edo segurtasun sistemaren batekin estaltzea komeni da.

MASAJISTAK

Victoria Iraegi

📍 Migel Urruzuno, 31 • Tel: **943 74 07 70**

..... Egunero: 10:30-13:00 / 15:00-19:00

MEDIKUNTZA ALTERNATIBOA

Kemen Belardenda (Diagnostikoak Insaren eta Kinesiologiaren bidez)

..... San Bartolome, 25 • Tel: **943 74 40 31**

..... Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

Surya Belardenda (Yoga, reiki eta masaia ikastaro eta tratamenduak)

..... San Frantzisko, 23 • Tel: **943 74 25 34**

..... Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

OPTIKAK

Ikus (Optiko-optometrista)

..... San Bartolome, 10 • Tel: **943 74 37 34**

..... Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

Uzuri (optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria)

..... San Frantzisko, 21 • Tel: **943 74 03 59**

..... Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

ORTOPEDIAK

Itziar Sarasketa

..... San Bartolome, 9 • Tel: **943 74 35 62**

..... Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

PODOLOGOAK

Ibittzen

..... Ubitarte, 11 • Tel: **943 74 36 56**

..... Egunero: 10:00-13:30 / 15:00-19:30

Inaki Rivero

..... San Bartolome, 28 • Tel: **943 74 32 90**

..... Ostegunak: 9:00-12:00 / 15:00-19:30

PSIKOLOGOAK

Nare psikologoak (Helduak, haurrak eta bikoteak)

..... Isasi 17, 1-B Eibar • Tel: **943 20 05 95**

Gida honetan agertu nahi baduzu, deitu 943 74 37 04ral

Osasunari buruzko kezka bat argitu nahi baduzu, deitu BARRENEko 943 74 41 12ra

3 ~ 1

• **Etxepe enpresa omenduko du 11. Korrikak**

Martxoaren 19an Iruftean hasi eta 28an Donostian bukatuko den aurtengo Korrikak 11 erakunde eta enpresa omenduko ditu. 11. edizioa denez, 11 izango dira omendutako erakundeak. Horien artean, Elgoibarko Etxepe lantegia dago, "Korrikari laguntzeaz gain, euskaraz funtzionatzen duen enpresa baita, gainerakoentzat eredu", adierazi digute AEKtik. Jakin dugunez, Korrika martxoaren 24an pasatuko da Elgoibartik iluntze aldera.

• **Matrikula zabalik AEK euskaltegian**

Otsailaren 12ra arte irekita egongo da matrikula epea AEK euskaltegian. Ohi bezala, EGA eta euskalduntze maila guztietako klaseak emango dira eta goizez, arratsaldez eta gauez izango dira klaseak. Langabetuek eta ikasleek matrikularen erdia ordainduko dute Udalaren laguntzari esker. Argibide gehiago nahi izanez gero, AEK Euskaltegira hurbildu edo 943 74 13 32 zenbakira deitu.

• **Material ortopedikoaren bilketa**

Osasun Zentrotik bidalitako ohar batean esaten denez, Osakidetza emandako makulu, erroberadun aulki eta tresna ortopediko guztiak itzuli egin beharko dira erabiltzeari utzi ondoren. Hortaz, tresna ortopedikoaren beharrik ez dagoenean Osasun Zentrorra eramateko eskatzen dute, beste gaitxoren batek erabil ditzan.

• **Agertu da Artazoren aldeko zozketako irabazlea**

Sallobente Batzordekoek jakitera eman nahi dute agertu dela Artazoren aldeko errifaren zenbaki sari-tuaren jabea. Eibarko Arrate auzoko Arimendi baserrikoak izan dira zenbakia erosi zutenak eta, beraz, 8 egunetako Mallorcara bidaiatzeko aukera izango dute. "Sallobente Batzordekoek bidaiaria ona izan dezatela opa diegu".

128 etxebizitza berri eraikiko dituzte Madalako eraikuntza lanen 1. fasean

Berehala ekingo diote 'Polleria' botatzeari. Etxeak egiten, berriz, martxoan hasiko dira

Hilabete asko pasatu dira Alkortako telarra bota zutenetik. Duela gutxi, berriz, telarraren beste zatia bota zuten eta orain Errezabal edo 'Polleria' bakarrik geratzen da botatzeko. Zarautzko Construcciones Amenabarrek hartu du etxeak eraikitzekeo ardura



eta Mendibil-Elgorriaga promotora da bultzatzailea. Roman Gunntxaga, promotorako arduradunarekin egon gara lanen inguruko xehetasunez hitz egiten. "Berehala hasiko gara Polleria botatzen eta horregatik bertan aparkatuta egoten diren autoak kentzeko eskatu dugu". Esan digunez, "5 bloke eraikiko dira, 4 pisuko bat eta gainerakoak 5 pisukoak, 128 etxebizitza guztira". Etxerik txikiak 11,5 milioi balioko ditu eta handienak 33,5 milioi pta. Etxebizitzaren inguruan gunee berdeak jarriko dira, "lehenengo solairuko

etxeek baratza pribatua izango dute eta abenida osoan arbola ugari landatuko dira". Dagoeneko jende asko eta asko joan da etxeei buruz informazioa eskatzera. "Momentuz 1. fasea baino ez dugu egingo eta 3 bat urte pasatuko dira fase hau bukatu orduko". Bigarren eta hirugarren faseak diseinatuta badituzten arren, oraindik Udaletxean onartu gabe daude. "Osasun Zentrotik hasi eta Batzokiraino bitartean etxeak eraikitzekeo proiektua egin dugu baina oraingoz lehenengo fasea nola doan ikusi behar da".

Jose Arana enpresario elgoibartarra hil da

Asteazkenean, hilak 27, Jose Arana enpresario elgoibartarra hil zen 87 urterekin. Elbarren jaio zen 1911 urtean eta oso gazterik, 16 urterekin hasi zen lanean, *Esperanza y Cta.* lantegian. Urte batzuk beranduago, 1919an, *Omegana* hasi zen.



lazko abenduaren 16an, Erreminta Makinaren Museoaren inaugurazio egunean jaso zuen omenaldian aitortu zuen bezala, "gutxi iraun nuen *Ontega* lantegian, *Solidaridad de Trabajadores Vascos* delako erakundekeo bazkide egin bainintzen". 1930ean, *Estarta y Ecetarro* lantegian sartu zen. 1942an, Rafael Uriberekin batera, *Jarbe* sortu zuen eta bost urte beranduago, *Nicolas Correa* enpresaren sorreran hartu zuen parte. 1967an, *Geminiseko* gerentea izan zen jubilatuta arte. Jose edo Pepe Arana, Bilbon bizi zen eta hileta elizkizunak, atzo, osteguna, izan ziren Bilboko Corpus Christi elizan.

Distantziarik ez hideokonferentziari esker

IMHko Injinerutza ikasle talde batek Paris, Irlanda eta Valentziako ikastetxeekin bilera egiteko aukera izan zuen bi-deokonferentziaz. IMHko ordezkariak Pariseko Injinerutza unibertsitateko kide batekin ari ziren berbetan argazkia atera genuenean. Izan ere, teknika honen bidez, edozein lekutako pertsonekin aunez aune hitz egin daiteke eta euren aurpegiak pantaila batean ikusi.



San Sebastian eguna ospatu zuten Herri Eskolan

Ohiturak agintzen duen bezala, Heni Eskolan, San Sebastian Egunean tanborrada egiten dute. Ikus dezakegunez, amantala gerrian eta txapela buruan, han aritu ziren tanborrak jo eta jo. Esan digutenez, umeez zein gurasoek izugarri disfrutatu zuten.



Ikastolako ikasleak Europistas-en Olentzero Lehiaketan sarituak

Ikastolako DBH 2. mailako ikasleek Europistas-ek antolatzen duen Olentzeroren lehiaketan 2. saria irabazi dute. Gipuzkoako ikasteixeez hartzen dute parte eta bakoitzak Olentzeroren panpina bat aurkeztu du. Ikastolakoek duela



Misioetako Tonbolako zenbaki sarituak

98-99ko Misioetako Tonbolako zenbaki sarituen zerrenda bidali digute San Lazaro egoitzatik. Opariak jasotzeko epea hilabetez luzatuko da. Hona hernen sariak eta zenbakiak:

Lapiko express jokoa 0244
Batidora 0912
Kuardroa 0921
Garaxilozko lana 1248
'Bucaro' 1501
Baxera 2164
Mantelak 2224

Mahai-tresneria 2346
Braun kafetera 2615
Apaingarri arabiarra 2975
Kristalezko jokoa 3326
Lapiko jokoa 3337
Sony irratia 3440
Eskumutuneko erlojua 3663



Patinetan ibiltzeko pista prest Urasandin

Udal Kirol Patronatuaren eskutik, patinetan eta monopatinean ibiltzeko 'half pipe triple' izeneko pista jarri dute Urasandin. Due 1a astebete inguru jarri zuten eta Herri Eskola gainean dagoen parkean dago kokatua. 'U' formako hiru blokez dago osatua eta inguruan patinetan ibiltzeko pista modukoa egokitu da. Beira fibraz estalitako poliesterrezko egitura honen azpian 300 m2ko hormigoia jarri da eta guztira 2,5 milioi pta.ko kostua izan du.

egun gutxi jakin zuten sarituak izan zirela eta kopa jaso bezain pronto argazkia ateratzeko deitu ziguten. Argazkian, saria irabazi duten DBH 2 mailako 48 ikasleak.

Bestetik, aurreko ostiralean, hilak 22, Ikastolako frontoia bete egin zen Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikasleen jaialdia ikusteko. 2 urtetik 11 urtera bitarteko neska-mutilek hartu zuten parte eta guztiek jaso zituzten ikusleen txalo beroak.

Luis Gdmez, 32 urteko diakonoa, oñatiarra da jaiotzez, 'Txantxikua'. Irailetik bera dugu apaiz berria. Injinerutza hasi eta berehala utzi zuen magisteritza ikasketeko. Sendotza egin zuenean kristau taldeetan sartu zen. Hasieran, autoa manejatzea zekien norbait behar zutela eta urtebetera, "taxista izatetik, taldeko buru izatera pasatu nintzen". Alecop-en 6 bat urtez lanean eman ostean eta urteetan landutako sinesmen sendoak bultzatuta, 27 urterekin, Teologia ikasketak egiteari ekin zion. "Saltseroa" dela aitortu digu; antolatzaile lanetan ibilitakoa gazte taldeetan, kirol ekintzetan,... "beti saltsatan". Gazteak eta fedea, zelibatoa, kontu askori buruz jardun dugu.

Senetako pertsonak surtzea da apaizen funtzioa"

—**Bi apaiz jarraian G6-mez abizenarekin. Eta biak gazteak.** Bai. Jendea izenarekin nahasten da eta badirudi Txomin Zabaleta apaiz elgoibartarraren antza dudala. Batzuetan 'zer moduz zure aitxitxa?' eta horrelakoak galdetzen dizkirate, Txomin naizelakoan.

—**Zein alde dago apaiza eta diakonoaren artean?** Diakonoa apaiza izateko egin behar den bidea da. Kristau Elkarteari laguntzea da funtzio nagusia, eliz-ospakizunetan parte hartuz, Eukaristiarik gabeko ospakizunak emanez, hau da, bataioak, ezkontzak,... Elgoibarren apaiz gutxi gaudenez Hitzaren ospakizuna egiteko aukera daukat auzoetan.

—**Bokazioaren krisiaz asko hitz egin da.** Lehen 12 urterekin sartzen ziren apaiz. Gaur egun, gehienak

zerbait ikasi ostean joaten dira seminariora. Nor bere bizitzan asko sakondu ondoren egiten den aukera da. Jendeak badaki nora sartzen den, gogoz joaten dira seminariora. Horrelako prozesu batean gutxieneko heldutasuna behar da. Autonomiaz hartutako erabakia da.

- **Zelibatoaren kontrako ahotsak ere entzun izan dira.** Zelibatoa ez da elizaren dogma bat. Garai batean hobeto ikusiak zeuden ezkonduetako apaizak ezkongabeak baino. Gaur egun zelibatoa derrigorrezkoa da apaiza izateko. Jende asko derrigortasun horren aurka dago, aukeran izatearen aldekoak dira. Nire ustez, tradizioak pisu handia dauka. Hain bizkor aldatzen den gizartean, eliza askoz abiadura motelagoan ari da aldatzen.

—**Modernizazio falta aur-**

pegiratu izan zaio elizari. Gauza bat da jendeak elizari buruz duen irudia eta beste bat gure Elkarte. Kristau Elkarte gu gara, pertsonak. Eta eliza hori da, gu eta gure arazoak. Eliza ez da aparte dagoen gauza bat.

Beteko al dira elizak berri? Nire helburua ez da eliza jendez gainezka ikustea. Benetako pertsonak sortzea da gure funtzioa. Gazteekin adibidez, lehenengo pausoa euren burua ezagutzera izaten da. Erresponsibleak eta kritikoak izaten irakatsi. Pertsona sana baldin badaukagu, irakatsiko diogu kristaua izaten.

—**Apaizen eskuhartzea zenbait gaitan ondo ikusten duzu? Politikan, esaterako.** Apaiza, elkarte baten buru den heinean eta bere funtzioa komunitate bat integratzea eta bateratzea bada, ezin du baten alde edo bestearen kontra agertu. Bakoitzak bere ideologia dauka, noski, baina apaizak ezin du publikoki azaldu. Beste kontu bat da gure gizartearen arazo larriei buruz, biolentziari buruz bidez, hitz egitea. Elizak kristau ikuspegitik azterketan egiten du eta zein bide jarraitu behar den esan. Politikoak askotan ahaztu egiten dira herritarren zerbitzura daudela. Hori gogoraraztea ez dago gaizki baina ezin dugu haruntzago joan.

—**Nola hartu zaitu Elgoibarko herriak?** Herritarrek irekiak direla iruditzen zait. Adineko jendeak eza gutzen nau batez ere, kalean agurtzen naute... Ni gustura nago eta printzipioz uztaile arte egongo naiz. Baina nire nahia bi edo hiru urte bertan pasatzea da.

LUIS GOMEZ

EESTEK ESANA

"Ofiatitik Elgoibanera; uizon luzea eta Iotsati xamarra. Behar izanez gero, hor duzu bere bihotzeko atea zabalik." TXOMIN ZABALETA, laguna



Kil' BAUTITE 141

Urtarrilaren 29a
51. zkia.

E N D A R O G E H I G R I



H

ilabete honetako argazkia M. Jesus Ulaziak utzitakoa da eta 1975 urte inguruan dago aterata. Ikus daitekeenez, mendarotar hauek Ospas Gain futbol zelaian daude eta esan digutenez, herritan'en artean jokatu zen partidu baten ostean atera zuten. Hona hemen erretratuan agertzen direnak:

Goian, ezkerretik hasita: **Ana Jesus Etxeberria, Maria Jesus Ula-
zia, Mari Kontxi Olazabal** eta **Leonor Barreras**.

Behean, ezkerretik hasita: **Aitor Etxeberria, Amparo Txurruka, Begoña Giga** eta **Rosa Zulaika**.

HERRI-GAIN
ERRETEGIA

San Pedro auzoa 4
tr 943 74 30 40 **ELGOIBAR**

IRCUTICUE ~~IBAS~~

Enpanadak

Enbutidoak

Baserriko ogia

~~Bolleria~~

Bartoiome, 6 /13, Ezenarro, 1 ZI 943 74 33 92

OIERKI IGOGAIWAK

Urrutira deitu gabe bertakook segituan
konponduko dizugu igogailua

'2 943 20 35 15 • ~~ABERIAK~~ 943 20 35 15

Bista Eder, 11 (sotanoa) ii 20600 EIBAR



PURIFICACION ALVAREZ
JESUS M. HERNANDEZ

- 1- Senarrak lokala behar zuen eta hemen gustukoa topatu genuen.
- 2- Denbora gutxi daramagu baina ondo bizi gara, lasai.
- 3- Elgoibarren.
- 4- Bai.
- 5- Bizitzeko eta egoteko

Mendaro hobeto dago baina dibertitzeko Elgoibar nahiago dugu.

- 6- Ondo dago. Egia esan, pisu asko begiratu ditugu eta hemengoak bezalakoak ez ditugu inon ikusi.
- 7- Alde ona, garraio asko dagoela eta Ospitala bertan dugula.
- 8- Alde txarra, berriz, denda gutxi dagoela.
- 9- Dendak jarriko nituzke. Lehengo egunean bikote batek Ospitalera eramateko oroigarria erosi nahi zuen eta ez zuen dendarik aurkitu.
- 10- Herri txikia, bestela ez nintzateke etorriko.
- 11- Ez, zerbait behar badugu Elgoibarrera joan eta kitto.
- 12- Bai, etxeak kalitate eta prezio aldetik oso ondo daudelako.
- 13- Une honetan ez baina gero eta politagoa ari da jartzen. Trinidadeko parkea oso polita da.

**JONE RODRIGUEZ
JOSE MIGUEL RUBIO**

- 1- Senarra, Jose Miguel, mendarotarra da eta hemen egiten du lan.
- 2- Beste herritaekoa bezalako da, ona.
- 3- Lehen Elgoibarren bizi ginen.
- 4- Ez dut diferentzia handirik somatu. Lehen ere auzoan bizi ginen eta lasaitasun handia geneukan.
- 5- Umeak izanez gero, Mendaron hobeto bizi gara, lasaiagoa delako. Arazo bakarra, 12 urterekin eskolara kanpora joan behar dutela da.
- 6- Jende ona da, ez dago arazo politikorik... ondo, ondo.
- 7- Ondo dago etxeak egitea eta beharrezkoa da Mendaroko gazteak herrian gera daitezen. Ikusi besterik ez dago etxe berri hauetan zenbat haur jaio diren.
- 8- Alde ona, lasaia dela eta hiriburueta joateko komunikabide oso onak dituzula eskura. Alde txarra, berriz, oso denda gutxi daudela.
- 9- Zerbait gehitzekotan, kiroldegia gehituko nuke.
- 10- Nahiago dut herri txikia.
- 11- Familia eta kuadrilako lagunak botatzen ditut faltan, baita Elgoibarko dendak ere, hala ere, oso gertu gaude.
- 12- Bai, egunetik egunera jende gehiago erakartzen du.
- 13- Bai, herri polita iruditzen zait.



Mendaro 5 z

Aspaldian jende ugari etorri da erbestetili Mendarora bizitzera eta horren arrazo; nagusienetarikoa, herri honetan egir diren, egiten ari diren eta egingo duter etxebizitzak dira. Izan ere, dagoeneko 7(etxe inguru eraiki dira eta une honetar beste 42 obretan daude. Gainera, ept laburrera hasiko dituzte 18 etxe gehiagt eta Etxe-Berri inguruan familia-bakarrekt

Aipatu berri dugunez, dozenaka etxe eraikiko dira berehalako batean Mendaron. Ospitaleko maldan, esaterako, familia-bakarrekook, bifamiliarrak eta baita pisu normatak ere eraikiko dituzte, 50 guztira. Azpilgoeta auzoan, berriz, 54 etxe eraikitzeo proiektua dago Palazio inguruan. Honek eraginda, azken urteotan biztanleen errolda handitu egin da. Izan ere, 1998. urte hasieran 1.318 biztanle zeuden Mendaron.. Iaz 8 ume jaio ziren, 50 pertsona etorri ziren Mendarora bizitzera, 15 hil ziren eta 17 kanpora joan ziren. Urte amaieran, beraz, hasieran baino 26 biztanle gehiago zituen Mendarok.

- 1- ZER DELA-ETA MENI
- 2- NOLAKO GIROA AURI
- 3- NON BIZI ZINETEN LE
- 4- DESBERDINTASUN ASI
- 5- NON BIZI ZARETE HO
- 6- NOLAKO JENDEA AUF
- 7- AZKEN URTEOTAN ET ZER IRUDITZEN ZAIZUE`
- 8- ESAIGUZUE MENDAR
- 9- ZER GEHITUKO ZENU
- 10- ZER DUZU NAHIAGO
- 11- ZERREN FALTA IGAF
- 12- ERAKARTZEN AL DI
- 13- HERRI POLITA IRUD

en ari da

17 etxe eraikitzeko proiektua dago. tkipatutako guztiak amaitzen dituztenean, Herriko Enparantza 176 etxebizitzaz usatutako auzoa izango da. Mendaro hazten ari da eta epe laburrera bizitza hartuko du inguru honek. Hilabete lonetan, kanpotik etorritako jendearekin aitz egin dugu eta galdeketa bat egin diegu. Ja nola bizi diren jakiteko asmoz.



ERA?

ERDUZUE?

ERDAUDE?

ERRO?

ERUDUZUE HEMEN?

ERILSKO EGIN DIRA.

ERIALDE ONAK ETA TXARRAK.

ERERIA ALA HERRI TXIKIA?

ERERUZU?

ERERNDAROK JENDERIK?

ERERIN ZAIZU?

VALENTINA ALCONERO
J.M. IGLESIAS

- 1- Senarrak Mendaron egiten duelako lan.
- 2- Oso pozik gaude batez ere lasaitasunarengatik. Martxa nahi dugunean kanpora joaten gara.
- 3- Ermuan bizi ginen.
- 4- Bai, batez ere jende gutxiago bizi delako eta zerbitzuak falta direlako.
- 5- Bietan gustura, nahiz eta beti Ermuan bizi izan naizen.
- 6- Denbora gutxi daramat eta jende gutxi ezagutzen dut.
- 7- Etxe asko ari dira egiten eta gero eta jende gehiago dator bizitzera baina ez daitezela gehiegi etorri!
- 8- Alde ona herri lasaia dela. Txarra, zerbitzu gutxi daudela. Hala ere, Udaltehea eta osasun zentroa gertu ditugu.
- 9- Zerbitzu gehiago.
- 10- Herri txikia, dudarik gabe.
- 11- Familia eta lagunak, baina Ermua ez dago urruti, beraz...
- 12- Egunetik egunera jende gehiago dator, argi dago. Nire familiari asko gustatzen zaio Mendaro.
- 13- Gero eta politagoa dago, batez ere egiten ari diren etxeekin. Trinitate parkea ere oso polita ari da geratzen.



BELEN MENDIETA
JUAN AGUSTIN ARRIOLA

- 1- Juan Agustin Mendarokoa da eta etxea erosteko Mendaro aukeratu genuen. Asteazken zehar herri gabilta eta asteburuetan lasaitasuna nahi dugu.
- 2- Gustura bizi naiz. Mendaro familia haundi bat bezalakoa da, onerako eta txarrerako.
- 3- Donostian eta Lasarten bizi izan naiz.
- 4- Desberdintasuna badago. Lasai zaude eta harreman gehiago duzu jendearekin baina martxa nahi baduzu kanpora atera behar duzu. Hala ere, Donostian eta Lasarten ere askotan autoa hartzen genuen.
- 5- Oso pozik nago.
- 6- Jende atsegina dago baina ez da berdina egunpasa etortzea edo bertan bizi izatea.
- 7- Ni oso pozik nago nire etxearekin. Etxebizitza berriek herriari bizitza eman go diote. Nire lagun batzuk kanpora joan behar izan dira etxe falta zela-eta.
- 8- Onak, lasaia dela, jendearekin erraz komunikatzen zarela, herri guztia ezagutzen duzula eta oso ondo dagoela komunikatua. Txarra, denda gutxi daudela.
- 9- Dendak, polikiroldegia eta ikastaroak jarriko nituzke.
- 10- Nik nahiago dut herri txikia.
- 11- Kanean pasiatu eta dendak ikustea botatzen dut faltan.
- 12- Bai, batez ere etxe berriak direla-eta.
- 13- Politia iruditzen zait: Herriko enparantza, Azpilgoeta, Lizarrolako paseoa...



❖ 34 lan aurkeztu dira IV. Ipuin Lehiaketan

Aurten 4. aldiz antolatu du Mendaroko Udalak ipuin lehiaketa. Guztira 34 idazlan aurkeztu dira eta sari banaketa ekitaldia urtaririlaren 3an izan zen. Hona hemen irabazleak:

A MAILA

(Mendaroko San Jose ikastetxeko 5. eta 6. mailako ikasleak)

1. saria: Joseba Juaristi Mendikute, "Denborarekin arazoak" lanarekin.
2. saria: Jon Lazkano Iriondo, "Tartalo eta bere alaba" ipuinarekin.

B MAILA

(Deba Beheko DBHko 1. eta 2. mailako ikasleak)

1. saria: Yolanda Munin Freire elgoibartarra, "Arazoak" ipuinarekin.
2. saria: Usoa Jurado Furundarena mendarotarra, "Ipotxak" ipuinarekin.

C MAILA

(Deba Beheko ertainetako ikasleak)

1. saria: Saioa Olazabal mendarotarra, "Azkenik aurkitu nauzu" lanarekin.
2. saria: Aintzane Agirrebeña eibartarra, "Gauaren ezkutuko aurpegia" idazlanarekin.

Epaimahaia Jasone Osoro BARRENeke kazetari eta idazleak, Angel Basterretxea Mendaroko apaiz eta idazleak eta Arantza Egafia. Euskara batzordeburuak osatu zuten.

❖ Santa Eskea

Urteroko ohiturari jarraituz, aurten ere Santa Eskea antolatu da Mendaroko kale eta baserrietan. Otsailaren 6an, larunbata izango da eta batutako dirua Dantza Solteko Eskola eta Bizi-Poza txarangaren artean banatuko da.

Ogi eta gozogintza ikastaroak Mendaron

DEBEMEN Elkartek 1999. urterako hainbat ikastaro antolatu ditu. Ikastaro hauek, printzipioz, Mendaron bizi diren emakume baserritarrei zuzendurik daude baina kaletarrek ere badute izena emateko aukera. Neguan eta udaberrian ondoko ikastaroak izango dira: egurgintza ikastaroa, otargintza ikastaroa, ogia artisau erara egiteko ikastaroa, gozogintza ikastaroa eta sendabelarrei buruzkoa.

Ogi eta gozogintza ikastaroak Mendaroko Linazasoroko lokalean izango dira. Izan ere, duela gutxi Mendaroko Udalak aipaturiko lokalak



erosi zituen eta une honetan egokutze lanak egiten ari dira bertan. Gainera, mcuixan jarri dute Mendaroko bizkotxoak eta ogia egiteko labe berria, guztira 23 milioiko inbertsioa egin delarik. Ikastaroak 20-30 ordu bitartekoak izango dira. Izena lehenbailehen eman behar da DEBEMENeko 943 74 40 67 telefonora deituta.

Inauteriak 98



Inauteriak ate joak daude. Otsailaren 12an, ostirala, San Jose Ikastolako ikasleek Mozorro Jaialdia izango dute arratsaldeko 14:30etik 16:30era. Larunbatean, berriz, Arno Guraso Elkartek eta Mendaroko Udalak antolatuta, animazio talde bat izango da Goñati pilotalekuan arratsaldeko 16:00etatik aurrera. Jaialdian tailerrak egongo di-

ra: eskulanak, mozorroak, makilaia... Horrez gain, hankapalu eskola eta musika jaia ere izango dira. Atsedendian txokolata banatuko da.

Bestalde, otsailaren 1 ean eta 2an, Ikastolako 3. eta 4. mailako ikasleak Donestebera eta Iturenara joango dira bertako inauteri ospetsuak ezagutzeko asmoz.

Hona hemen sagardotegietako giroaz goatzeko 22 proposamen aukeran

SAGARDOAREN

txinparta

ABURUZA (Aduna)

- **NAGUSIA:** J. Joxe Aburuza Otegi.
- **SAGARDOTEGI SASOIA:** urtarriletik irailera.
- **JATEKOA:** sagardotegiko menua.
- **LEKUA:** 300 lagun.

Olatza haserria (Aduna)

Tr 943 69 24 52



AKELENEA (Astigarraga)

- **NAGUSIA:** Gurutzalde elkarte.
- **SAGARDOTEGI SASOIA:** urte osoan irekita.
- **JATEKOA:** sagardotegiko menua.
- **LEKUA:** 80 lagun.

Oialume bidea, 59 (Astigarraga)

Tr 943 33 33 33



AMONDARAIN (Tolosa)

- **NAGUSIA:** Maria Dolores Aierza.
- **SAGARDOTEGI SASOIA:** urtarrilaren 9tik apiril bukaerara arte.
- **JATEKOA:** sagardotegiko menua.
- **LEKUA:** 150 lagun.

**Gure Ametsa Etxea
Santa Luzia, 25 (Tolosa)**

Tr 943 65 33 54



ASTARBE (Astigarraga)

- **NAGUSIA:** Joxe Manuel Astarbe.
- **SAGARDOTEGI SASOIA:** urtarriletik apirilera.
- = **JATEKOA:** sagardotegiko menua.
- **LEKUA:** 140 lagun zutik nahiz eserita.

Mendiola haserria (Astigarraga)

Tr 943 55 15 27



AULIA (Legorreta)

- **NAGUSIA:** Juan Inazio Etxeberria.
- **SAGARDOTEGI SASOIA:** Santa Luziatik maiatz bukaerara arte.
- **JATEKOA:** sagardotegiko menua.
- **LEKUA:** 140 lagun.

Aulia Enea baserria (Legorreta)
ir 943 80 60 66



- **NAGUSIA:** Antonio Begiristain.
- **SAGARDOTEGI SASOIA:** urtarriletik apirilera.
- **JATEKOA:** sagardotegiko menua.
- **LEKUA:** 100 lagun.

Iturrioz etxea (Ikaztegleta)
12 943 65 28 37



EIZMENDI (Hernani)

- **NAGUSIA:** Maixa Eizmendi.
- **SAGARDOTEGI SASOIA:** urtarriletik apiril bukaerara arte.
- **JATEKOA:** sagardotegiko menua edo norberak ekarria.
- **LEKUA:** 160 lagun.

Osinaga auzoa (Hernani)
ir 943 55 64 05



ISASTEGI (Tolosa)

- **NAGUSIA:** Migel Mari Lasa Arostegi.
- **SAGARDOTEGI SASOIA:** urtarriletik maiatzera.
- **JATEKOA:** sagardotegiko nahiz norberak eramandakoa.
- **LEKUA:** 200 lagun.

Aldaba-Txiki auzoa, 15 (Tolosa)
Tr 943 65 29 54



GURUTZETA (Astigarraga)

- **NAGUSIA:** Gurutzeta S. A. T.
- **SAGARDOTEGI SASOIA:** txotx sasoi.
- **JATEKOA:** sagardotegiko menua.
- **LEKUA:** 110 lagun zutik.

Oialume bidea, 59 (Astigarraga)
Tr 943 55 22 42



KORTA (Gabiria)

- * **NAGUSIA:** Inazio Korta.
- **SAGARDOTEGI SASOIA:** urtarriletik apirilera.
- **JATEKOA:** Sagardotegiko menua eta mariskeria. Gazteentzako menu berezia (2.200 pta.)
- **LEKUA:** 110 lagun.

Korta sagardotegia (Gabiria)
Tr 943 88 71 86



- **NAGUSIA:** Ixabel Santa Kruz.
- **SAGARDOTEGI SASOIA:** urtarriletik apiril bukaera arte. Astelehenetan itxita.
- **JATEKOA:** sagardotegiko zein norberak eramandakoa.
- **LEKUA:** 120 lagun.

Larregain etxea, Erehozu (Hernani)
ir 943 55 58 46



MATXO (Urnieta)

- **NAGUSIA:** Manuel Igarategi.
- **SAGARDOTEGI SASOIA:** urtarriletik denboraldia bukatu arte.
- **JATEKOA:** sagardotegiko menua.
- **LEKUA:** 100 lagun.

Idiazabal, 42 (Urnieta)
ir 943 55 20 33



OTATZA (Zerain)

- **NAGUSIA:** Ramoni Lopategi.
- **SAGARDETEGI SASOIA:** urtarriletik apiril bukaerara arte.
- **JATEKOA:** sagardotegiko menua edo norberak eramandakoa. Urtean zehar merenderoa.
- **LEKUA:** 200 lagun.

Otatza baserria (Zerain)

T 9 43 80 17 57



OTEGI (Lasarte)

- **NAGUSIA:** Julian Otegi Egia.
- **SAGARDETEGI SASOIA:** urtarriletik apiril bukaerara arte.
- **JATEKOA:** sagardotegikoa edo norberak ekarria.
- **LEKUA:** 170 lagun.

Soile Enea baserria (Lasarte)

943 36 50 29



UISUENEA (Hernani)

- **NAGUSIA:** Ximon Etxeberria.
- **SAGARDETEGI SASOIA:** urtarriletik apiril bukaerara arte.
- **JATEKOA:** sagardotegiko menua nahiz norberak eramandakoa.
- **LEKUA:** 150 lagun.

Osinaga auzoa (Hernani)

T 943 55 68 94



REZOLA (Astigarraga)

- **NAGUSIA:** J. Ramon Rezola isasa.
- **SAGARDETEGI SASOIA:** urte osoan zabalik.
- **JATEKOA:** sagardotegiko menua eta arkumea burduntzian enkarguz.
- **LEKUA:** 100 lagun, eserita.

Ipintza baserria (Astigarraga)

T 943 55 66 37



- **NAGUSIA:** Serafin Sagarzazu.
- **SAGARDETEGI SASOIA:** urtarriletik abuztura bitartean.
- **JATEKOA:** sagardotegiko menua.
- **LEKUA:** 100 lagun.

Barnetxea baserria (Hondarribia)

T 943 64 16 41



- **NAGUSIA:** Esteban Lertxundi Uria.
- **SAGARDETEGI SASOIA:** Urte osoa.
- **JATEKOA:** sagardotegiko menua.
- **LEKUA:** 1.000 lagun inguru

Saizar baserria, z/g
tr 943 36 22 28/37 29 82

Elr

11M



TXINDURRI ITURRI (Itziar)

- **NAGUSIA:** Rosario Arruti irigoiien
- **SAGARDETEGI SASOIA:** urtarrilaren 2. astetik irailaren erdialdera arte.
- **JATEKOA:** sagardotegiko menua.
- **LEKUA:** 70 lagun.

Mardari auzoa (Itziar)

as 943 19 93 89



- **NAGUSIA:** Patxi Azkonobieta Etxeberria.
- **SAGARDETEGI SASOIA:** urtarrilaren 16tik apirilaren bukaerara arte.
- **JATEKOA:** sagardotegiko menua edo norberak ekarritakoa.

Aginaga auzoa (Usurbil)

T 943 37 26 91




- **NAGUSIA:** Ramon Zabala Mendizabal.
- **SAGARDETEGI SASOIA:** urtarriletik maiatzera arte.
- **JATEKOA:** sagardotegiko menua.
- **LEKUA:** 120 lagun.

Garagarza baserria (Aduna)

T 9 43 69 117 74



"Tergat ekartzeko asko ordaindu dugu, baina merezi izan du"



Jose Mari Kortaberria

III Adina: 34 urte.

- **Bezperan lo egiteko arazorik?** Ez. Nerbioak nekearekin erraz gaintitzen ditut. Arazoa da lo egiteko ordu gutxi izaten ditugula.
- **Kinielarik egin duzue?** Aurten ez. Hala ere, pronostikoa bete da. Gure historialerako sekulako podiuma izan dugu aurten.
- **Lerun ala Mintxeta?** Mintxeta hobea da. Ez dago asfaltorik, instalazioak hobek dira eta ibilbide osoa ikusteko aukera dago.

- **Noiz hasi zinen krosaren antolakuntzan?** Aurtengoarekin laugarren urtea da. Hala ere, krosa nire bizitzaren parte bat izan da beti. Aita zena Elkarteko bazkidea zen eta oso txikitatik ikusi dut krosa inguruan. Honez gain, urte asko dira nire kuadrila osoak ibilbideko lanetan laguntzen duela eta ni ere partaide izan naiz.

- **Lasterketa ikusgarria eta eguraldia eta jendearen erantzuna ere ikusgarriak,** Eguraldia ezin zitekeen hobea izan sasoi honetarako eta jendearen erantzuna ere ona izan da. Sarreretan jasotako diruan igarri da. Ibilbidea zabala da eta jendea oso sakabanatuta egoteak zaila egiten du kopuru zehatza jakitea, baina 2.500 ikusle ingurura hurreratuko ziren. Ez da ikuslego errekorra hautsi, baina azkenengo urteetatik hona kopurua igo egin dela argi dago, aurreko urtean baino %30 gehiago, gutxi gorabehera.

- **Esango al diguzu orain, dena ainaitu denean, zenbat kobratu duen Paul Tergat-ek?** Aurten gure erronka Paul Tergat munduko txapelduna ekartzeta izan da eta hori lortzea ez da batere erraza izan. Gainera, oso garrantzitsua izan da aste osoa eman duela gure artean. Komunikabideak kopuru askorekin gora eta behera aritu dira, baina gure aldetik ez da ezertxo ere atera. Argi dago diru asko izan dela, ez dugu kopuru zehatza esan nahi, baina errentabilizatu dugula uste dugu eta hori da garrantzitsuena.

- **Aurrekontua zenbatekoa zen? No-**

la egin diozue aurre? 13,5 milioikoa. Erakunde ofizialen laguntza, patrozinatzaile eta gainontzeko publizitatea, lasterketako sarrerak eta Elgoibarko enpresa eta merkatal etxeen laguntza izan dugu.

- **Horrelako lasterketa batean ezinbestekoa da jendearen laguntza.** Oso beharrezkoa, batez ere ibilbidea prestatu eta lasterketa egunean bide guztian eta helmugan egoteko (antidopinean, podiumean,...). Sarreran egoteko Ego-Tokiko bazkideen laguntza izan dugu, eta gainerako lanetarako badugu 3-4 kuadrilaren laguntza. Egiten duten lana txalotzekoa da, meritu handikoa. Gainera, asteburuan, goizean goizetik lan asko egin behar da eta jendea topatzea ez da erraza izaten. Gure partetik, mila esker bihotzez guztiei. Atletismo batzordeko kideak 9 gara, baina guztira 50 lagun gabilta lanean.

- **Punta-puntako lasterketa izan da. Ba al dago hobetzerik?** Bai, noski, aurrekontu handiagoarekin dena hobetu daiteke, baina ez da lan erraza izango. Aurtengo gizonezkoen lasterketa lu-xtrzkoa' izan da eta gure erronka hori gaintitzen ahalegintzea izango da. Aurten nesken lasterketa izan da eskasena, gripea dela-eta, askok ezezkua eman baitziguten azken orduan. Listoia igotzeko diru sarrerak handitu beharko dira eta hori gero eta zailagoa da. Lerro hauetatik, herriko enpresa eta merkatal etxeei publizitatean laguntzeko gonbita luzatu nahi diet, proposamen interesgarri asko baititugu.

ESKOLARTEW KIRALAK

ESKUBALOIA

(Ikastolake goiko jolas-lekuan)

- **Benjamin mutilak** ■
- 10:00 Ikastola A- Mendaro A
- 10:30 Ikastola C- Ikastola B
- 11:00 Herri Eskola B- Pilar A
- 11:30 Pilar B Herri Eskola A
- **Benjamin neskek** •
- 12:00 Ikastola C- Pilar B
- 12:30 Ikastola B- Ikastola A

ESKUBALOIA (Ikastolako pistan)

- **Infantil neskek** ■
- 9:00 Ikastola A - Pilar B
- 9:45 Ikastola B- Ikastola E
- 10:30 Ikastola C Ikastola D
- 12:00 Pilar A - Jauja

■ infantil mutilak •

11:15 Pilar B - Ikastola

FUTBOLA (Mintxetan)

- **Alebin neska-mutilak** ■
- A **ZELAIA**
- 8:45 Mendaro A- Pilar A
- 9:30 Mendaro B- Ikastola A
- 10:15 Hamaika Neskek - Pilar B
- 12:00 Txinpartak Goizeko Izarra D
- 12:45 Ikastola B- Mikel Deu. A (Nes.)
- B **ZELAIA**
- 9:15 Ikastola A- Pilar A (Nes.)
- 10:00 Pilar B- Herri Eskola
- 10:45 Ikastola B- Ikastola C
- 11:30 Lekube - Goizeko Izarra A
- 12:15 Ikastola C- Goizeko Izarra B (Nes.)

ESK@LARTEK4 KIROLAK

ESKUBALOIA

- **Benjamin mutilak** ■
- Ikastola A 9 Pilar A 4
- Pilar B 24 - Mendaro A 3
- Herri Eskola B - Ikastola B 11
- Ikastola C 14 - Herri Eskola A
- **Benjamin neskek** ■
- Ikastola A - Pilar A 8
- Ikastola B 5 - Ikastola C 6
- **Infantil neskek** ■
- Ikastola B 1- Pilar B 0
- Ikastola D 14 - Ikastola E 5
- Ikastola A 0 Jauja 9
- Ikastola C - Pilar A 1
- **mutilak** ■
- Pilar B 6 - Pilar A 6
- Jauja 1 - Ikastola 0

FUTBOLA

- **Alebin neska-mutilak** •
- Hamaika Txiki 2 - Ikastola A 7
- Hamaika Nes. 3 - Ikastola B 3
- Mendaro B 0- Herri Eskola 3
- Pilar B 1 Goizeko Izarra D 4
- Ikastola C 5- Mendaro A 5
- Ikastola B 5- Mikel Deu. B 3
- Pilar A 2 - Goizeko Izarra A 4
- **Alebin neskek** ■
- Ikastola A 3 - Mikel Deu. A 7
- Ikastola C 0- Pilar B 3
- Pilar A 0- Goizeko Izarra B 5

56. Mugerza krosa

Paul Tergat, jaun eta jabe

laz baino ikusle gehiago izan zen Mintxetan, 2.500 lagun inguru

Erraztasunez eta mai-sutasunez irabazi zuen Paul Tergat txapeldun ken iarrak aurreko domekan Mintxetan. Ondo neurtutako lasterketa egin zuen; une oro arerio guztiak kontrolatzen. Jon Brown ingelesak aurrea hartu zionean, Tergat-ek bere estrategia-ri eutsi zion. Lasterketa atnaitzeko bi kilometro falta zirenean, erritmoa bizkortu eta atzean laga zuen Brown. Lau aldiz munduko kros txapelduna denak 2 minutu eta 57 segundoren azpitik egin zuen azken bira. Helmugara bakarrik iritsi zen.

Emakumezkoen lasterketan ere, antzeko zerbait gertatu zen. Luisa Larraga espainiarra lasterketaren buruan jarri zen hasie-



G. Georgis etiopiarra helmugara heltzen.

ratik eta tiraka aritu zen azken kilotnetrorara arte. Une horretan Gennet Georgis etiopiarra aurrea hartu eta lehenengoa iritsi zen Mintxetako helinugara.

Ikusle asko

Goizean goiz benetan fresko **bazegoen ere**, eguerdi alderako eguzkiak bere lana egin zuen. Uda-berri sasoiako eguraldia eskaini zigun urtarrilaren 24ak. Eguraldi onak eta Munduko txapeldunaren presentziak bultzatuta. ikusle asko hurreratu ziren Mintxetara. Ego-Tokikoek esan digutenez, "2.500 bat lagun egongo ziren domekan Mintxetan. Aurreko urteetako ikusle kopuruarekin alderatuz, %30eko igoera izan da aurten".



Ego-Tokiko Atletismo Batzordeko kide guztiak Paul Tergat korrikalariarekin.

SAILKAPENAK:

Senior gizonak:

- 1- Paul Tergat (Kenia) 31'13"
- 2- Jon Brown (Ingalaterra) 31'23"
- 3- Daniel Gaehara (Kenia) 31'31"

Senior emakumeak:

- 1- Gennet Georgis (Etiopia) 17'34"
- 2- Luisa Larraga (Aragoa) 17'37"
- 3- Margaret Okayo (Kenia) 17'49"



"Munduko Txapelketa irabazten badut Elgoibarri eskainiko diot"

Domekan, lasterketa amaitu eta gero, Ego-Tokiko Atletismo Batzordeko kideak, Elkarteko zuzendaritzakoak, Udaleko agintariak eta eta beste zenbait gonbidatuk afaria egin zuten, urtero bezala. Paul Tergat ere bertan izan zen. Hunengo egunean munduko txapeldunak Keniara bueltatu behar zuen Elgoibarren aste osoa pasatu eta gero. Kafearen orduan, zutik jarri eta diskurtso txiki bat egin zuen ingelesez. Interpreteta Luis Santolaya izan zen. Aste osoan jasotako harrerarengatik eskerrak emateaz bat, lasterketa bat kortitzera joan eta bertan astebete pasatu duen estreinako aldia izan dela aitortu zuen. Honako hau ere esan zuen: "aurten bosgarren aldiz segidan Munduko Kroseko Txapelduna izaten banaiz, elgoibartarroi eskainiko dizuet saria".

* Okerrak zuzentzen: Aurreko astean oker eman genituen Paul Tergat-en 5.000 eta 10.0(X) metroko denborak. Zuzenak ondokoak dira: 5.000 metroan 12'49"87 eta 10.000 metroan 26'27"85.

AULIFillikiidillj
Futbola
Soraluze 1- Elgoibar 5 (1. erreg.) Urola 1- Elgoibar 0 (Neskak) Aurrera 3 - Haundi 2
Eskubaloia
6. Giroa 18 - IMS Elg.19 (Sen. nes.) Unceta Elg. 26 - Eharialde 16 (Jub. nes.) Pagoaga Elg. 15 - Eharialde 13 (Kad. nes.)
Idarraga Kafeak 2. Saria
HAUNDIKO jokalaria erregularrena 98/99
JOKALARIA PUNTUAK
1- Ailor Trebiño 25
2- Eneko 21
3- Beitia 18
4- Txasio 18
5- Iker Leonardo 17
6- Ibon Muguruza 17
7- Draz 17
8- Elkoro 15
9- G. Lazarbaster 12
10- Igor 11
11- G. Leonardo 10
12- Caro 10
13- Madina 10
14- Loren 5
15- Portu 1
5 1 1 3 3 3 5 : 1
Areto Futbola, Kiroldegian
Ostirala, 29 22:10 Zur Ta Lur Elg. - Bar Bueneblea (1. maila)
Eskubaloia, Kiroldegian
Larunbata, 30 16:00 Tecnomeca Elg. - Ccrazonistas (Natl. mul.) 17:30 Pneumax Elg. - Corazonistas (Jub. mul.) 19:00 IMS Elg. - Muskiz (Senior nes.)
Futbito, Kiroldegian
Igandea, 31 9:00 Los Peñaskos - MeniscO 10:00 Los Herminios - S. Braga 11:00 Aizkorak Mendibil - Kunta Kinte 12:00 Aide Globun - Berrogei Duro 13:00 PSK - Lojantzi
Futbola, Mintxetan
Larunbata, 30 17:00 Haundi - Lemona 18:45 Elgoibar - Aimen (Neskak) Igandea, 31 10:45 Elgoibar - Aitzgorri (Int.) 12:00 Elgoibar - Atiorga (L. N. jub.) 16:30 Elgoibar - Zarautz (1. erreg.)

rtz 21

0 laberinto do'Fado

F adp hitzak ez du interes gehiegirik sortzen jende askoren artean, nahiz eta hitz honek musika eta bizitza portugaldarrak izugarritzko sentimenduarekin batu. Lisboa eta Fadoa 'saudadel kontzeptuaren gainean eusten dira. Kontzeptu honek amodioa eta bihotzeko tristuraren ondorioak gordetzen ditu. **MISIA** izeneko abeslari portugaldarrak *Garras dos sentidos* izeneko diska ederra argitaratu du, malkoz betetako, gorri kolorearen pasioa beltzaren tristurarekin nahasten dituelarik. Hasieratik, diskoak biluzik dagoen sentsazioa ematen du, baina xarnurtasunez betetako abestiak direnez, ez dauka instrumentu askoren beharrik. Ahotsak, kitarra portuges baten eta eskusoinuaren inguruan dantza egiten duen heinean, ileak puntan jartzen dizkizu, benetan. Madreus taldeak bezala, **MISIAk** ahotsarekin jolasten du armonia hauskorrek sortuz. Baina ez pentsa bide berbera jarraitzen duenik, abeslari honek fadoaren esentziatik edan du. Abesti eder baina tristeen bidez, eta beti sinpletasunarekin jolastuz, gure bihotza zein koloretakoa den gogorarazten digu... Badirudi Lisboan malkoen laku bat agertuko dela, nola ote?

Iban Urizar



Kandelaria, San Blas eta Santa Ageda, tradiziozko jai herrikoiak

Otsailaren 4an, Elgoibarko Izarrakoak baserriz baserri arituko dira eskean

Urtarrila amaitzeardago eta otsaila ate joka ari zaigu. Urtero bezala, Kandelaria, San Blas eta Santa Ageda Egunak ospatuko ditugu. Otsailaren 2an Kandelaria Eguna izaten da. Izenak dion bezala, kandelak elizara bedeinkatzera eramaten dira egun honetan. Otsailak 3, San Blas eguna, anis opilak, fruta, bestelako jakiak eta hariz egindako lepokoak bedeinkatzen ditugu; eta azkenik, otsailaren 4an, Santa Ageda bezpera, Santa Eskean aterako dira Elgoibarko Izarrakoak. Hauez gain, herriko ikastetxeetako ikasleak ere eskean aterako dira Santa Agedaren omenez.

Baserriz baserri

Duela bost urte beneskuratu zuen Elgoibarko Izarra Kultur Elkarteak baserriz baserri koplatan eta eskean aritzeko ohitura zaharra. Elgoibarko Izarratik esan digutenez, aurtengo Santa Eskeari buruzko zuzenketa bat egin nahi dute. "Pasa den astean banatutako oharrean, bi egunetan aterako ginela esan bagenuen ere, gauzak hobeto aztertu ostean, Santa Ageda bezperan bakarrik, otsailak 4, irtetea erabaki dugu". San Migel, San Lorentzo, San Pedro eta Urruzuno auzoak koplaturiko dituzte eta batutako dirua Artazo baserriarentzat izango da. Eguerdiko 14:30ean Plaza Handian elkartuko dira eta gaueko 22:00ak aldera arte jardungo dute koplatan. San Migeleko Kalamua Elkartearen afalduz amaituko dute eguna.

Itxaropena abesbatza ez da aurten Eskean irtengo

Iaz 'Etxegiña'k sortutako koruak bi egunetan irten ziren eskean, bezperan



Santa Eskekoak eta Itxaropena abesbatzakoak ez dira bezperan kantuan aterako.



Elgoibarko Izarrako bi taldek San Migel, San Lorentzo, San Pedro eta Urruzuno auzoetako baserriak koplaturiko dituzte

Itxaropena abesbatzarekin, eta Santa Ageda osteko zapatuan. Aurten bezperan ateratzeko asmoa zutela adierazi bazuten ere, azkenean, ez irtetea erabaki dute. "Gauzak behar bezala prestatzeko astirik ez dugu izan eta iaz oso jende gutxi azaldu zenez, ez irtetea erabaki dugu".

Bestalde, otsailaren 6an, zapatua, Santa Eskeko korua osatzen duten kide guztiak herri osoa zehakartuko dute kantu kantari. Goizean goiz, Parrokoaren etxearen aurrean lehenengo bertsoa abestu ondoren ekingo diote eskeari. Eguerdiko 13:00etan, iaz hil ziren Ramon Uriguen eta Sabino Sorondo omenduko dituzte Plaza Handian. Ondoren, Santa Eskeak ohiko bideari jarraitu eta Errosario kalean Salbea kantatuz amaituko dute. 14:00ak aldera Baltasar Elkartearen bilduko dira bazkaltzeko.

Magisteritza

OLATZ ARRIOLA



Magisteritzako bigarren ikasturtean zaude. Bai. UBI n auanian garbi nakan ez nabala nahi ikasterik injineritza eta holakuak. Ez nabana nahi bost urteko karrera itxia. Horregatik aukeratu nabana magisteritza eta oso pozik naio.

- Hiru urteko ikasketak dira eta espezialitateak daude aukeran, ezta? Bai. Lelengo urtian asignatura amankomunak daude eta bigarrenetik aurrera segun eta ze aukeratzeko dozun, zure adarreko asignatura berezixak daukazazu. Musika, Lehen Hezkuntza, Haur Hezkuntza eta Atzerriko Hizkuntza dia dauden espezialitateak eta nik Lehen Hezkuntza aukeratu dot.

- Nolatan ez zenuen musika aukeratu txistua ikasten egonik? Txistuko zazpigarren kurtsua itxen naio eta datorren urtian espero dot amaitzia karrera. Esan zien txistuko karrera in eta gero beste kurtsu berezi bat inda klasiak eman ditzakedala eskoletan. Horregatik, nahixao izan nabana Lehen Hezkuntza in eta aukerak zabaltzia.

- Praktikak ere badituzue, ezta? Bai. Bigarren kursuan hilabeteko praktikak itxen ditzugu ikastetxe batian. Beste irakasle baten onduan egoten gera berak klasia zela ematen daban ikusten. Gero, hirugarren kurtsuan lau hilabeteko praktikak dia eta kasu horretan gure esku geratzen da klase baten prestaketa eta antolaketa. Argi esan digute ez pentsatzeko jai

egunak diazela eta Ian in bihar dala.

- Esaten den bezain erraza al da magisteritza? Ez da zaila baina ezta ere jendiak pentsatzen daban bezain erreza. Azken batian, klasera jutiakin bakarrik ez dozu aprobaten eta ikasi in bihar da azterketa garaixan. Egunian piska bat errepassauta atera leike baina ikasi ere in bihar da.

- Gustatzen al zaizu irakaskuntza? Bai, baina egixa da klasian komentatzen dogunian laster gu izango gerala irakasliak, zaila itxen jakula imaginatzia. Oin arte, ikasle izatera ohitxu gera eta kanbixu haundixa da, baina uste dot politxa izango dala, gainera, neri umiak asko gustatzen jataz.

- Erantzukizuna ere badu. Bai, jendiak uste dabana baino gehixo. Azken batian, umiak eguneko ordu gehixenak eskolan pasatzen ditzue eta gure esku dao neurri haundi batian euren etorkizuna. Nik entzun izan diot jendiari matematikako irakasle oso txarra euki zabalako 11-lologia in dabala. Hori adibide bat da. Irakaslien esku dao ume baten hezkuntzaren parte inportante bat eta hori erantzukizun haundia da.



INTURAK
PEDRO PEREZ BERISTAIN
San Roke, 30 behea. Tf: 943 74 36 52 74 27 89
KONIUNITATEAK ETA FATXADAK - BERRIZTATZEAK - PINTAKETA

01.1150
TRBERNF1

Olaso industrialdea, 15
Tel: 943 74 31 85

-EGUNEKEI MENLIFIK-
-GFIUEZ-
Ostiral eta larunbatetan
enkarguzku afariak

OfinUTEER
fistelebenetik estiralera 1:0H-22:30
Larunbatelan 9:0011 aurrera

3 asteazkena

9:30 SAN BLAS OPILEN
BEDEINKAZIOA
Parrokian

31 igandea

9:00 XOXOTERA
MENDI IRTEERA
Irteera IMHtik
Antolatzailea: Ilutstola

10:00 ESKOLARTEKO
IGERIKETA JAIALDIA
Kiroldegian
Antolatzailea: Eskola
Kirola Programa

16:30 ZINEA
"Slappy y los mofetas"

19:30-22:15 ZINEA
"Juegos Salvajes"

4 osteguna

14:30 SANTA ESKEA
BASERRIZ BASERRI
Irteera Plaza Handian
Antolatzailea:
Elgoibarko Izarra

16:00 SANTA ESKEA
PILAR IKASTETXEAN

22:15 ZINE KLUBA
"Keep cool"

29 ostirala

22:15 ZINE KLUBA
"Mi nombre es Joe"

3 larun ata

12:00 ZAZPIKIREN
BILERA
Ganbaran

19:30-22:15 ZINEA
"Juegos Salvajes"

1 astelehena

22:15 ZINEA
"Juegos Salvajes"

5 ostirala

22:30 ANTZERKIA
Taldea: Oihulari Klown
Herriko Antzokian
Antolatzailea: Haizea
Emakume Taldea

11 NE A



Zuzendaria: John McNaughton.
Antzezleak: Matt Dilon,
Kevin Bacon, Neve Campell.

Juegos salvajes

Blue Bay herriko neska eder eta aberats bat bertako eskolako irakaslearekin naiterninduta dago. Dirua biltzeko ekitaldi bat aprobetxatuz, neska, irakaslearen etxean sartzen da seduzitzeko asmoz. Hurrengo egunean, neskak amari aitortzen dio irakasleak bortxatu egin duela. Egun batzuk beranduago, beste neska bat etortzen da herrira, eta honek ere, irakasleak bortxatu egin duela dio.

Ongarri zine kluba

Otsailerako prestatu dituzten pelikulak lau dira. Lehenengoa beheko aldean laburturik agertzen den 'Keep Cool' filme txinarra da. Hurrengo filmearen izenburua Argentinako E. Mignona zuzendariaren 'El faro del sur' da. Errepideko filmea dela esan daiteke. Aurreko zapatuan, Goya saria jaso zuen Ertamerikako filmirik onenaren atalean. Hirugarren astean, iaz oso harrera ona izan zuen 'Boggie Nights' filme amerikarra emango dute, P. Thomas zuzendariarena. Azkenik, Brasiletik 'Estacion central de Brasil' pelikula ikusteko aukera izango dugu. W. Sales da zuzendaria eta sari ugari ari da jasotzen. Brasilen, aitaren bila dabilen mutiko baten bidaia poetikoa eta majikoari buruzko kontakizuna da. Martxoan izango diren 98ko Oscar sarietarako faborittoa da atzerriko filmirik onenaren atalean.

• Reiki ikastaroa

Surya belardendak bi eguneko Reiki ikastaroa antolatu du. Hilaren 30ean (zapatua) arratsaldeko 16:30etik 20:00etara bitartean izango da eta hilaren 3 In (domeka) goizeko 10:00etatik 13:00ak arte. Adin guztietako pertsonak har dezakete parte eta nor bere burua sendatzen irakatsiko da, minutako lekuaren gainean eskuak jarritz.

• Erlo eta Xoxotera mendi irteera

Ikastolak antolatuta, domekan, hilak 31, Erlo eta Xoxotera mendi irteera izango da. Goizeko 9:00etan Erreminta Makinaren Institutuaren inguruan elkartuko dira Erlorantz abiatzeko. Antolatzailerik guraso eta ikasle guztiak parte hartzera animatu nahi dituzte.

• Eskuz Taldeak antolatutako birziklaia eta errestaurazio ikastaroa

Otsail eta martxo bitartean, *Eskuzek* antolatuta, altzariak zaharbertitzeko ikastaroa izango da Pedro Muguruza ikastetxeko lokaletan. Altzariak bertitzeko ernan behar diren pausoak eta tratamendu ezberdinak ikasteko aukera izango da, besteak beste. izena emateko 943 74 14 49 telefonora deitu eguerdiko 13:00etatik 15:00era bitartean. Irakaslea Nieves Maidagan errestauratzailea izango da.

• San Blas eta Santa Ageda Egunak Pilar ikastetxean

Urtero bezala, herriko ohiturei helduz, San Blas eta Santa Ageda Egunak ospatuko dituzte Pilar ikastetxean. Otsailaren 3an, goizeko 9:30ean, ikasleak Parrokiarantz abiatuko dira meza entzuteko. Ondoren, opilak eta lepokoak bedeinkatuko dira. Bestalde, otsailaren 4an, arratsaldeko 16:00etan ikastetxeko patioan elkartuko dira bertsoak kantatzeko Santa Agedaren omenez. Ikasleei baserriar jantzita joatea eskatzen zaie.

• Sebillana ikastaroa

Udal Kirol Patronatuak antolatu duen sebillana ikastaroa, bihar, hilak 30, hasiko da. Hilabeteko iraupena izango du eta ordutegia goizeko 10:00etatik 11:30era bitartekoa izango da larunbat goizetan. Ikastaroan parte hartu nahi duenak izena emateko **aukera dauka** 943 74 44 15 telefonora deituta.

• Igeriketa jaialdia Eskola Kiroleko haurrentzat

Domekan, hilak 31, Eskola Kirola Programak antolatutako igeriketa jaialdia izango da Olai-zaga Kiroldegian eskolarteko kiroltari aritzen diren neska-mutilentzat. Goizeko 10:00etan benjaminen txanda izango da eta 11:00etan alebinek eta infantilek izango dute uretan jolasteko aukera.

T X A N D A K

FARMAZIAK

- | | | |
|-----------|--|------|
| | Egunez | Gauz |
| 30 | Etxeberria Etxeberria
(Santa Ana kalean) | |
| 31 | Etxeberria Etxeberria
(Santa Ana kalean) | |
| 1 | Anduaga Anduaga | |
| 2 | Yudego Yudego | |
| 3 | Zabaleta Zabaleta | |
| 4 | Etxeberria Etxeberria
(Errosario kalean) | |
| 5 | Escala Escala | |

ESCALA: Rekalde, 1

Soraluze. Tel: 943 75 16 38

ANDUAGA: Mendarozabal, 1

Garagarza. Tel: 943 75 61 42

ZABALETA: Kalebarren, 9

Soraluze. Tel: 943 75 13 84

OKINDEGIA

31 igandea Idarraga

11 - - IR al... - - - EI - 11 - - 111 IR - - -

4:11

7:1

4:11 rEd.4

CP

ris

4

O t'4



Keep cool

Egungo Txinan girotutako pelikula da, Zhang Yimou zinegile ezagunarena (Sorgo Rojo, La linterna roja,...). 97ko Cannes-eko jaialdian aurkezteko asmoa izan zuenean, Txinako agintariek debekatu egin zioten filmea erakustea. Ia ere, kopia klandestino bat egin eta Cannes-era eramatea lortu zuen. Mendebaldeko gizartearen ikuspuntutik egindako filmea da, liburu saltzaile baten, intelektual baten, polizia baten eta neska baten arteko pasarte bati buruzkoa.

Antzezleak: Lang Wen,
Li Baotian, Qu Ying.

Z MIMI - - - - - IR • IR • 111 ■ 11 • • 111

Bestelakoak



Lana

sESKAINZA•

- Agentzia inmobiliarioak (Errosario kalea, 25, behe) saltzaileak behar ditu salinenta inmobiliarioetarako. 7(-50eko komisioa. ir 943 74 43 58
 - Astegunetan lan egiteko karnaroa behar da, tr 619 86 30 16
 - Neska behar da umeak zaintzeko. tr 943 74 34 86. (19:00elatik aturera).
 - Astebunte'tan barran lan egiteko pertsona bat behar da v 943 74 43 46
- *ESKAERA•**
- Neska eskaintzen da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. tr 943 74 35 43
 - Neska gaztea eskaintzen da etxeko lanak egin, umeak zaindu eta garbiketarako egiteko orduko. Esperientziarekin, v 943 58 40 39 (Maite)

Partikularrak

- Kimikan lizentziatuak matematika, fisika eta kimika klaseak ematen ditu Mendaron. Maila guztiak: OHO, DBH, BI313, UBI, FP, REM... Esperientziarekin. u. 943 75 62 51
- Frantseseko klaseak ematen ditut, Intentsiboa ere bai. v 943 19 10 71 (Carolina)
- Matematika, Fisika, Kimika, Marrazketa eta ikasgai teknikoak (neumatika, hidraulika...) buruzko partikularrak ematen ditut. rr 943 74 22 29 (Begoila)

Carajeak

- Garaje itxia salgai Pista beltzean. v 943 74 03 81
- Marradun garajea alokatzen da Arregitorren, s 943 74 33 43
- + Marradun garajea saltzen edo alokatzen da Pista Beltzean. Prezioa hitz egitekotan. tr 943 74 23 13 (eguerdian. Inma)
- Marradun garajea saltzen dut Leku-Ederren, re 943 74 43 98 (gauetz)

- Taberna traspasatzen da. tr 943 74 19 43 (Nekane)
- Urtarrilaren 19an sei harri dituen belarritakoa galdu nuen Andikano baseritik San Frantzisko kalera bitartean. Ta. 943 74 13 14 (Itziar)
- Arraza anunteko katua oparitzen dut. S 943 74 05 62 (Almuctena)
- Aurreko larunbatean, hilak 9, arratsaldeko 19:00ak eta gaueko 12:00ak bitartean, tren geltokiko aparkalekuan, ibilgailu batek nire Peugeot 205 beltza jo zuen. Norbaitek zerbait ikusi badu deitu 943 74 39 13 zenbakira (arratsaldeko 20:30etatik aurrera).
- Katu siarnesa galdu dut. Lepokoa darama helbidearekin. Norbaitek aurkitu badu jo dezala Ura-sandira, 11. blokea, 51-3(Vieente).
- Pultsera galdu nuen Herriko Antzokian izan zen azken kontzertuan. Familiako oroigarria da. Norbaitek aurkitu badu dei dezala. Saritu egin-go da. s 943 74 05 20 (Mila)
- Abenduaren 21ean haur batek auto teledirijitu gorria galdu zuen Plaza Haundian. Norbaitek aurkitu badu, dei dezala v 943 74 09 86 telefonora.
- Lepoko foulard luzea galdu nuen Errege Egunean San Roke inguruan. Artilezkoa eta zetazkoa da, urdina eta marroia. Topatu duenak dei dezala rr 943 74 17 18ra.
- Betaurreko graduatuak galdu nituen San Antolin eta Herriko Antzokiaren artean, Aurkitu badituzu deitu v 943 74 31 99ra.

Salerosketak



SALDU

- Butanoko estufa saltzen dut lar 943 74 23 90
- Golf GTI autoa saltzen dut, 6 urte ditu eta egoera onean dago. tr 648 77 17 32
- Silver Cross Bilbao modeloko kapotadun kotxe bat saltzen da osagarriekin. s 943 74 37 82 (19:00etatik aurrera)
- + Nissan Vanette saltzen da, NA-Z. Kanpinerako prestatua. Estrak barne. Prezio onean. tr 943 60 45 31
- Tabako makina saltzen da. Merkea.13: 943 74 00 38
- Renault Express 1600 diesel furgoneta salgai. NA-T. 325.000 pta. mr 943 74 32 83 (Iñare)

OHARRA: **MerkatuTxikirako mezuak ekartzeko azken eguna asteazken eguerdia da.**

Etxebizitzak

- Pisua saltzen da Mendaron. 76 m2 ditu. s 943 74 31 07
- Pisua alokatuko nioke pertsona bati sei hilabeterako. Altzariak ditu. re 649 03 65 82 (Santi)
- Etxea saltzen da Sigman. Logela guztiak kanpora ematen dute. Egoera onean dago. tr 943 74 25 36
- Santa Ana kalean etxea saltzen da. 2. pisua ganbara eta igogailuarekin. tr 943 74 03 83 943 74 18 34
- Pisua saltzen da, altzariekin eta berogailuarekin. •a- 943 74 18 20
- Ukala saltzen da Pedro Muguruzan. 56 m2 ditu. s 943 74 06 48
- Lokala saltzen da. Bulegoa, garaiea, biltokia eta komuna ditu. v 943 74 14 23
- Etxehiztza salgai Errosario kalean. s 943 74 17 95
- Apartamentua Itziazarren salgai edo alokatzeko daukat. Itsasora begira, guztiz ekipatua. re 943 19 22 65

Agulfrak

- Zorionak Miriam Lizarralderi urtarrilaren 27an urteak bete zituelako. Kuadrilaren partez.
- Zorionak Nereari bihar, urtarrilak 30, 12 urte beteko dituelako. Ahizpa Olatz, guraso eta familiaren partez. Ondo pasa!
- ♦ Koko-ua-ua, 21 unerekin anti-guetate denda batean, aintzinako trasteekin batera saltzen jartzeko hezala zaude. Zorionak Tutiatita.
- Zorionak Arritotxikito! Ezetz asmatu zein garen! 11 urte bete dituzu! Agur zahartxo!
- Zorionak Estelari urtarrilaren 27an 11 urte bete zituelako. Zer uste zenuen, ez ginela gogoratuko? Laura eta Iruneren partez. Zorionak, baita ere, Cristinaren partez.

- Zorionak Jon Ander Martini otsailaren 3an 3 urte beteko dituelako. Musu handi bat familiaren partez.



+ Hilaren 6an urteak bete zituen Joni eta hilaren 31n urteak beteko dituen bere arreba Nagoreri zorionak eta musu bana guraso eta sendi guztiaren partez.

• Zorionak ama Josefari hilaren 26an urteak bete zituelako. Familia guztiaren eta bereziki Mireia, Itsa,so, Maialen eta Endikaren partez.


• Zorionak Ander Martini hilaren 26an 10 urte bete zituelako. Familiaren partez.



• Zorionak Maitanerri hilaren 31n 10 urte beteko dituelako. Guraso eta ahizparen partez.



• Zorionak Maitede Pablari hilaren 28an 7 urte bete zituelako. Familia guztiaren partez.



• Zorionak Jose Migel Martini hitaren 25ean urte bete egin zuelako. Guraso, ton-amon, birraiton-arnon, osaba,

lehengusu eta Nela maskotaren partez.

• Zorionak Estela, 11 urte bete zituelako hilaren 27an familiaren partez, bereziki altzira Juliaren partez.



• Zorionak gaur 12 urte bete dituelako, Familia guztiaren partez egun ona pasa dezazula. Asko maite zaitugu.

11) 111111 IKASTETXEA



Hezkuntza eta hizkuntza eskaintza berezia

D.B.H. (E3.0.)

12-16 urte

EUSKARA - GAZTELAMA - INGELESA - FRANTSESA

LEHEN HEZKUNTZA

6-12 urte

ELJSKARA- GAZTELANIA - INGELESA

HAUR HEZKUNTZA

2-6 urte

EUSKARA - INGELESA

ESIUUNTZEN DIZUEGU:

HEZKUNTZA ELKARTEA: (Ikasle, guraso eta irakasleak) identifikatua eta partehartzailea.

1 GELA BEREZIAK: informatika, teknologia, liburutegia, laborategiak, polikiroldegia, psikomotrizitate gela...

1 EKINTZA OSAGARRIAK: kirolak, txapelketak, txangoak, antzerklak,

JANGELA: trakasleen ardurapean.

1 LAGUNTZA PSIKOPEDAGOGIKOA: bertako psikologo eta pedagogoarekin

1 ZENTRO KONTZERTATUA: 2 urtetik 16ra bitarteko irakaskuntza balmendua eta subentzionatua.

AURREMATRIKULA ZABALIK:

Otsailaren 2tik 12ra, 16:30etik - 19:00etara

Urasandi kalea - Tel 943 74 13 31 Faxa: 943 74 41 00



liwsults E1,4m.ye4



PARTAID
kastola

*Uste al duzu zure **SEME-ALABAK**
PRESTATUTA egongo direla
ETORKIZUNARI arrakastaz
aurre egiteko*

Ikastola



**GAUR EGUNGO
HEZIKETA
EUSKALDUNA
BIHAR-ETZIRAKO.**



Tfnoak: 943 74 44 41 / 943 74 84 31
emaila: elgolbar@ikastola.net